



KUTXA Enplegatuen Elkartea	Xendazaletasun atala
126. zka 6. etapa GR-283	Zaldibia-Segura/2018-09-08

Xendazale adiskideok:

Gaztaren Ibilbide honen azken etapa. Eta oso ibilbide berezia herri ospetsuetatik igarotzen delako, bertan dauden baselizengatik, historia eta istorioengatik, ondarengatik, ... guztiengatik!

Joan zen 2017ko martxoaren 11n hasi genuen Seguran GR-283 hau, eta orain amaituko dugu. Zaldibia utzi eta Lazkaon dagoen San Joan Ante Portam Latinam (San Joan Ebanjelaria, 1770. urtekoa) baselizara iritsiko gara; igaro ginen hemendik Aralarreko Bira (GR-20) egin genuenean, baina aspalditxo izan zenez, gutxik izango duzue gogoan. Datuen jakin-mina duzuenontzat, esan behar da 2005eko otsailaren 13an izan zela, eta eguraldia..., sarritan bezala, ez genduela lagun izan! Amezketara eta Ataun arteko etapa. Paseotxo bat!!!

“Oianguren”go inguru ederretik igaro ondoren, Ordizia entzutetsura irtengo gara. Alfontso X.a Jakintsuak sortua da 1256. urtean. “Herri-gune historiko” txikia zeharkatuko dugu, eta azkar iritsiko gara Beasainera, *villa* edo hiribildu titulua 1615ean lortu zuelarik, Felipe III.ak emanda. Igartzako jauregiaren ondotik igaroko gara: iraganeko multzo garrantzitsua da, kapera, errota eta burdinolarekin.

Hemendik Olaberrira, “Zeba” zuelarik jatorrizko edo antzinako izena. Santa Kruz baselizatik gertu igaroko gara, Agerre baserriaren ondotik. Zebako parroikia izan zela esaten da. 1552an dago dokumentatua. Gero, beste herri ospetsu batera, Idiazabalera, iritsiko gara. Baina aurrez Gurutzetako baseliza bitxiaren ondotik igaroko gara; diotenez, udalerriaren jatorrizko parroikia izan zen. Bitxikeria gisa, esan behar da Paulo VI.a aita sainduak opari egindako kaliza bat dagoela bertan. Ikuspegi ezin ederragoak daude gain edo goragune honetatik.

Nabarmentzekoa San Migel eliza ere, XII. mendekoa: portada edo aurrealde zoragarria erromaniko berantiarra da, gotikorako trantsiziokoa, oso dekorazio aberatsa duena. Eta Artzainari eta Gaztari monumentua Rafael Huerta Celayaren lana da. Bidaldi honen azken zatian gaude. N-1 zeharkatu berriro eta irispidean izango dugu azken helmuga, Segurako hiribildua.

Aspaldiko garaien erlikia, Erdi Aroko jauretxeak ditu, eta hauen fatxadetan harresien barruan sorturiko leinargien armarriak ikus daitezke. Historia hutsa. Horren lekuko dira Santa Krutz, Andre Maria Magdalena, Santa Engrazia, San Joan Bataiatzailea, San Bizente, San Andres, San Migel, Santa Barbara eta San Sebastian baselizak.

Animo mendizaleok, natura zain dugu eta !!!

Ibilbidea: Zaldibia-Segura

Beharrezko denbora	5,00 ordu
Goranzko desnibel metatua	587 metro
Beheranzko desnibel metatua	554 metro
Zeharretara egin beharreko distantzia	19.360 metro

DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta-José Ignacio Acuña

	Ertain a	1		Orientazioa	1		Joan-etorria	1		Esfortzua	3
--	-------------	---	--	-------------	---	--	--------------	---	--	-----------	---

Irteera-lekua	Bilbo plaza (17/24 bus-geralek.) eta Pio XII.aren plaza (24/27 bus-g.)
Aurkezteko ordua	07:40 (Bilbo plaza) eta 07:45 (Pio XII.aren plaza)
Irteera-ordua	07:45 (Pio XII.aren plaza)
Bazkaria	XXXXXXX jatetxea.
Prezioa	31 euro

Izena emateko azken eguna: 2018-09-06ko 12:00etan

Oharra: b/ Eguraldiaren iragarpena txarra izango balitz larunbaterako, 15-16ko asteburuan egingo litzateke ibilaldia.

b/ Eguraldiaren iragarpenaren arabera, ibilaldia aldatzeko aukera izango dute antolatzaileek.

Izen-emateak	egiteko:	Alberto	Lahuerta	(656-
721.208/Senderismodad@gmail.com	gmail.com)	eta José	Ignacio Acuña	(943-
31.02.52/joseig15@gmail.com).				

DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta-José Ignacio Acuña